

**IRUTXULOKO hitza** info

2008-05-20 **Eguraldia**

Goiza Arratsaldea Temperatura Itsasoa

17°  
12°

ITSASOGORA	06:33-17:45
METEOAK	8,59-17,4
ITSASBERHERA	11,35-23,56
METEOAK	0,85-7,6

**Argitaratzailea:** Donostiako Hedabideak S.L.  
**Logo Gordailua:** 55-226-05  
**Zuzendaria:** Ion Lopez  
**Egoitza nagusia:** Katalina Elexegi 36 behekoa  
**Telefonoa:** 943.46.72.36  
**Faxa:** 943.44.65.32  
**E-posta:** donostia@irutxulokohitza.info  
**Webgunea:** www.irutxulokohitza.info

**Zuzendariordea:** Raul Perez  
**Kudeatzailea:** Karmelo Urbitandio  
**Irutxia:** irutxia@irutxulokohitza.info  
**Hiria:** hiria@irutxulokohitza.info  
**Auzoak:** auzoak@irutxulokohitza.info  
**Kirolak:** kirolak@irutxulokohitza.info  
**Agenda:** agenda@irutxulokohitza.info  
**Publizitatea:** donostia@ragari.net  
 Loiola kalea 14-1, 2. bulegoa

**Donostiako Hedabideak S.L.ko kideak:**

'Hitza' dirut laguntzen duten erakundeak:

Donostiako Euskaltzainen Elkartea  
 BERTAKO HEDABIDEAK  
 Donostiako Udala  
 Gipuzkoako Foru Aldundia  
 Hitza-h. Ibai Euskarari

eta aranzuz Donostiako beste 40 eragile

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak aigitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

# Poesia errezitaldia zuhaitz artean

**Literatura»** Aurtengo 'Literaktum' zikloari bukatzeko poesia errezitaldia egin zuten Benartegi baserrian.

**MAITANE ALDANONDO**

Urumea ibaiaren ingurune paregabean kokatua dagoen Benartegi baserriaren atzeko aldean poesia errezitaldiaren lelaiko izan zen larunbat arratsaldean. Azken unea arte ez zuten ziur jakin zuhaitzez inguratutako belardian ekitaldiaren eszenatokia izango ote zen, baina lehen erroak irakurtzeko ordua heldu zenean, euriak atsedean hartzea erabaki zuela zirudien.

Ezohiko eszenatokiaren inguruan kokatutako aukietatik musikaz eta olerkiak gozatzeko aukera izan zuten gerturatu ziren 40 bat lagunek. Lehen ilaran eserita zeuden irakurle izan ziren Angel Erro, Zehra Cirac eta Xenia Dyakonova olerkilariek beren txandaren zain. Banan-bana alkatu eta ekitaldirako prestatutako olerki sortatzen erdia irakurri zuten lehenik. Poemak olerkilarien ahots eta ama hizkuntzan entzuteko aukera izan zuten entzuleek, baina, dirudienez, gehienak ez zuten errusieratalemanieran oso ondo menperatzen, eta ulertu ahal izateko, hasieran banatutako liburuxkan irakurri behar izan zuten itzulpena.

Xenia Dyakonovak eman zion hasiera ekitaldiari. Bere olerkiak errusieraz irakurri zituen, iruzkin labur bat egin zuen guztelaniaz bakoitzaren aurretik. Angel Erroren kasuan aldiz, poetik berak egin zuen hainbatean euskaratik eta guztelaniara itzulpena.

**Ingurunearen edertasuna**

Atsedenaaldiaren aurretik eskaini zuten perkusiozko musika emanaldia amaitzean, bertaratutakoek, ikuskizunean entzundakoaz gain, paisaia naturalaren edertasuna goripatu zuten.

Beren ibilbidean zerua zeharkatzen zuten lainoak agertzean, berandu baino lehen, arduradunek ekitaldiarekin aurrera egitea erabaki zuten. Errezitaldian zehar irakurritako erroak, naturako beste soinuelkin nahastu ziren hurrengo orduan zehar. Zenbait unetan eguzkiak argitu zuen belardia, eta entzan ziren trumoi bakarrak, Realaren golen garrasiak izan ziren.



Zehra Cirac olerkilaria turkiarrak bere olerkiak irakurri zitkien Benartegi baserria gerturatu ziren entzuleek. M.A.



Poeta bat bere olerkiak irakurtzen. M.A.

WWW.MONDRAAGON.EDU/PREST

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

2008

2008ko urtearen proiektu berria

DONOSTIA KULTURA